

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**257/2020 Foru Agindua, abuztuaren 11koa, Bovedako herriaren jabetzakoa den "Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendian dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatzen duena**

Mendi Zerbitzuak jakinarazi du, Mendi Zerbitzuak 2020ko ekainaren 8an egindako txostena oinarri hartu duela. Txosten horrek bide eman zion ekainaren 11ko 186/2020 Foru Aginduari, zeinak onetsi baitzuen administrazio prozedurari hasiera ematea, Bovedako herriaren jabetzakoa den "Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendian dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen zentroaren okupazioa erregularizatzeko. Halaber, kontuan hartu dira Arabako Lurralde Historikoko Mendien 11/2007 Foru Arauaren 24. eta 26. artikulua, eta horien arabera, iritzi da Itelazpi SAK ez duela aipatutako okupazioa bermatzen duen titulurik, bai eta erregularizazioa administrazio emakida bidez egin behar dela ere, okupatutako lursailaren titularrari kontraprestazio ekonomiko bat ezarri, horretarako egiten den txosten tekniko-ekonomikoaren arabera.

Kontuan hartu da, era berean, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatutakoa, eta ikusi da Nekazaritza Saileko foru diputatuari dagokiola espediente hau abiarazteko eta ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.

Aztertu dira xedapen horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 59. artikuluan xedatutakoa eta aplikatzekoak diren legezko manuak, eta abenduaren 18ko 52/1992 Arauak emandako ahalmenak baliatu dira.

Mendi Zerbitzuak zegokion administrazio prozeduraren instrukzioa sustatu du finkatzeko Bovedako herriaren jabetzakoa den "Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendian dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen telekomunikazio zentroaren okupazio baimenaren baldintzak.

Aztertu da ekainaren 11ko 186/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita hasiera ematea Bovedako herriaren jabetzakoa den "Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendian dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen telekomunikazio zentroaren okupazioa erregularizatzeko espedienteari, non jasotzen baitira administrazio prozedura abiarazteko arrazoiak.

Aztertu dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua aplikatuz egindako entzunaldi izapidetan eta espedientea interdunen esku jarritako hamar eguneko aldiari Itelazpi SAK egindako oharak.

Kontuan hartu dira Mendi Zerbitzuak izapidetutako espediente osoa eta hura osatzen duten dokumentuak, baita Mendi Zerbitzuak Itelazpi SAK egindako oharrei buruz 2020ko abuztuaren 6an egindako txostena ere.

Bukatu da Bovedako zentro igorleak onura publikoko 121. mendia okupatzea erregularizatzeko prozeduraren instrukzioa.

Aipatutako xedapenak aztertu dira, eta egindako proposamena behar bezala arrazoituta dago, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 84. artikulua betez.

Zuzenbideko oinarri hauek hartu dira kontuan:

Bovedako komunikazio zentroa, eta bertara iristeko bidearen zati bat, Bovedako herriaren jabetzakoa den "Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendiaren lurretan dago eraikita. Mendi hori Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartuta dago, Sustapen Ministerioaren 1909ko maiatzaren 5eko Errege Aginduak behin betiko onetsi zuenetik.

1985eko irailaren 16ko Transferentzien Bitariko Batzordearen Akordioa betez Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) Zerbitzuak Eusko Jaurlaritzari eskualdatzeko Eusko Jaurlaritzak azaroaren 5ean emandako 336/1985 Dekretuak ezarritakoaren arabera, EAEko ondareari dagokio Bovedako komunikazio zentroa osatzen duten instalazio guztien titulartasuna, baina horiena baino ez, inola ere ez baitzaio eskualdatu komunikazio zentroa eraikita dagoen eta Bovedako herriarena den onura publikoko mendiaren zati diren lursailen titulartasuna.

Egiaztatuta geratu da Itelazpi SA enpresak ez duela titulu egokirik Bovedako herriarena den "Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendiaren erabilera pribatiborako.

Okupazioa da "Lerón" izeneko mendi katalogatuaren zati bat modu pribatiboan erabiltzea haren legezko jabea den Bovedako Kontzejua ez den beste erakunde batek, eta, beraz, Arabako Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren (aurrerantzean, MFA) 24. artikuluan xedatutakoa bete behar da. Izan ere, artikulua horren arabera, katalogatutako mendi baten zati bat okupatzeko, mendien arloan eskumena duen foru aldundiko sailaren administrazio emakida behar da. Lege manu horrek, halaber, NFM indarrean sartu aurreko okupazioei eragiten die, kontuan hartuta zer xedatzen duten Mendien azaroaren 21eko 43/2003 Legearen lehenengo xedapen iragankorrek eta baso jabari publikoko mendiei eragiten dieten zortasunak eta beste-lako kargak berrikusteari buruzko apirilaren 28ko 10/2006 Legeak; hau da, manu horrek Lerón izeneko onura publikoko 121. mendiari eragiten dio, Mendien Katalogoan sartuta dagoelako.

MFAren 24.1. artikulua xedatutakoari dagokionez, bateragarriak dira oraingo okupazioa eta erabilera eta mendiaren onura publikoko izaera (gainazaleko eragina < ehuneko 0,01), baldin eta bete egiten badira proposamen honen xedapenen zatian jasoriko baldintzak.

Mendiaren jabe den Bovedako Kontzejua ez dago okupazioaren aurka, baldin eta betetzen bada MFAren 26. artikuluan xedatutakoa, bai eta okupazio kanona ezartzeari buruzkoak ere.

Telekomunikazio zentroaren okupazioaren ezaugarriak aztertu dira, eta frogatutzat eman da mendiaren onura publikoarekin bateragarria dela.

Kontuan hartu da Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatutakoa, eta ikusi da Nekazaritza Saileko foru diputatuari dagokiola espediente hau abiarazteko eta ebazteko eskumena, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.

Azalduko guztiagatik, eskaera aztertu da eta frogatutzat eman da proiektua mendiaren onura publikoarekin bateragarri dela, Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak III. kapituluko 24. eta 26. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, dagozkidan ahalmenak baliatu ditut.

Aginduzko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

## XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ebaztea Bovedako herriaren jabetzakoa den "Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendian dagoen eta Itelazpi SAK kudeatzen duen telekomunikazio zentroa okupatzea erregularizatzeko espedientea.

Bigarrena. Baimena ematea Gaubeako Udalerriko 2 poligonoko 769 zenbakiko katastroko lurzatian 82 m<sup>2</sup> okupatzeko; lurzati hori Bovedako herriaren jabetzakoa den "Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendian dago, eta okupatutako area horretan daude Bovedako zentro igorlearen instalazioak, besteak beste, komunikazio dorrea, bi etxola, energia elektrikoaren hartunea eta perimetro itxitura ere.

Hirugarrena. Onespina ematea jabari publikoaren ("Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendia) erabilera pribatiborako ematen den administrazio emakidari, baldintza hauekin:

1. Kokapena, okupazio eremua, instalazio nagusiak eta linea elektrikoaren okupazioa.

Kokapena: Gaubeako Udalerriko 2 poligonoko 769 zenbakiko katastroko lurzatia, zeina Bovedako herriaren jabetzakoa den "Lerón" izeneko onura publikoko 121. mendian baitago.

Igorpen zentroko instalazioak kokatuak dauden okupazio azalera: 82 m<sup>2</sup> guztira.

Instalazio nagusiak: 19,5 metroko garaierako komunikazio dorrea, oinplanoan 16 m<sup>2</sup> eta 6,5 m<sup>2</sup> dituzten bi etxola (guztira 22,5 m<sup>2</sup>), energia elektrikoaren hargunea eta perimetro itxitura.

Linea elektrikoaren okupazio azalera: linea elektrikoak 2.281 m<sup>2</sup> hartzen ditu "Leron" izeneko onura publikoko 121. mendian, eta 1.854 m<sup>2</sup>, Lalastra herriarena den "Valcabado" izeneko onura publikoko 147. mendian.

2. Zentro igorlerra sartzeko bide nagusiak hainbat erabilera dauzkanez, Itelazpi SAK bide hori mantentzeko egingo duen ekarpena bidez egiten duen erabileraren proportziokoa izango da. Proportzionaltasun hori mendiaren erakunde titularrarekin adostu beharko du eta Mendi Zerbitzu honi jakinarazi beharko zaio 2021eko martxoaren 31 baino lehen. Edonola ere, Itelazpi SAK izango du ardura leheneratzeko baimendutako arearen barruan eta okupazio azaleratik kanpo zentro igorlea kudeatu eta ustiatzearen ondorioz kaltetu daitezkeen zonak.

Ezin izango dira hara sartzeko beste bide batzuk erabili, lehenago Bovedako herriak baimena ematen ez badu.

Enpresa emakidadunak du instalazioaren ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalteen gaineko erantzukizun zibila.

3. Hasiera batean 30 urtekoa da okupazio epea, eta gehienez ere 75 urte arte berrizta daiteke, horixe baita toki araubidearen legediak finkatzen duen epea, betiere ematen zaion erabilerak bere hartan jarraitzen badu.

4. Erakunde titularrak ezar dezakeen kanona gorabehera, honela ezarriko da Itelazpi SAK ordaindu beharreko kanona eta honela berrikusiko da,

txosten tekniko-ekonomiko honen arabera: Bovedako telekomunikazio zentroak onura publikoko 121. mendia okupatzeagatiko kanonaren kalkulua, TRAGSATEC enpresak egina:

Bovedako Administrazio Batzarraren alde: 5.960,05 euro urtean; horietatik:

Telekomunikazio zentroaren erabilera pribatiboagatik: 5.846,00 euro urtean.

Linea elektrikoak dakarren basoko demanioaren okupazioagatik: 114,05 euro urtean.

Valderejoko Administrazio Batzarraren (Lalastra) alde: 92,70 euro urtean; horietatik:

Onura publikoko 147 mendia zeharkatzen duen linea elektrikoak dakarren basoko demanioaren okupazioagatik: 92,70 euro urtean.

5. Kanona urtero berrikusiko da, aurreko hamabi hilabeteetako KPlaren arabera eguneratuko diren aleko prezioak aplikatuta azaleraren baldintzei, dorrearen altuerari eta kanona eguneratzean instalatuta dauden elementuei, irizpide gisa hartuta kanonaren txosten tekniko-ekonomikoan (“Bovedako telekomunikazio zentroak onura publikoko 121. mendia okupatzeagatiko kanona”) adierazitakoak, eta berrikuspena egingo da okupazioa arautzen duen foru agindua aldatzearen bidez. Onura publikoko mendia okupatzeko baimena eman eta hilabeteko epean egin beharko du ordainketa Itelazpik.

Dorrearen altuera eta okupazio azalera aldatzearen ondoriozko eguneratzeak baimena ematen den unean egingo dira.

6. Bost urteko txostena: Okupazioaren emakidaren datatik bost urteko epea bete aurreko 15 egunetan, enpresa emakidadunak txosten bat bidali beharko du instalatutako elementuen datuak eguneratzeko. Kanonaren urteko berrikuspena egiteko balioko du.

7. Linea elektrikoen azpiko landaredia garbitzeko lanak, bide ertzak mantentzekoak edo beste edozein esku hartze egin behar izanez gero onura publikoko landaredian, Mendi Zerbitzuko langileen ikuskaritzapean egin beharko dira, hark kontrolatuko ditu-eta egin beharreko sastraka kentze, inausketa eta zuhaitz mozte lanak, langile horiek seinalatu beharrekoa seinalatu eta gero, eta aprobetxamendua, halakorik egonez gero, mendiaren erakunde titularren onurarako izango da.

8. Okupazio epea betetzen denean, edo baimena ematearen helburu den erabilera lehenago bukatuz gero, titular emakidadunak instalazioak kendu eta eragindako lurak lehengoratu beharko ditu, gehienez ere urtebeteko epearen barruan.

Laugarrena. Ebazpen hau mendi publiko katalogatua okupatzeko izapideari dagokio, eta ez du emakidaduna salbuesten indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen beste baimen eta lizentzia batzuk izapidetu beharretik.

Bosgarrena. Foru Agindu hau jakinaraztea Bovedako eta Valderejoko (Lalastra) administrazio batzarrei, Itelazpi SA sozietateari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritako moduan.

Seigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du, eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuari. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorritik: Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 11

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*  
**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**